

2022
2023

JARDUEREN
MEMORIA



REAL SOCIEDAD
FUNDAZIOA

01

PRESIDENTEAREN AGURRA

Hamabi urteko ibilbideak bermatzen du Real Sociedad Fundazioaren jarduerak. 2011n sortu zenetik, saiatu gara pertsonen bizitza hobetzeko programak eta jarduerak aurrera eramaten, betiere gure **ardatz estrategikoetan** oinarrituta: **ingurumena, berdintasuna eta inklusioa, hezkuntza, kultura eta jarduera fisikoa, ongizatearen iturri gisa.**

Horrenbestez, sortzen duten inpaktuagatik eta jarduera eremuagatik bereziki garrantzitsuak diren proiektuak sendotzen joan gara, eta, aldi berean, gure lurraldeari balioa emateko bide berriak aztertzen saiatzen diren proiektu berriak gehitzen ari gara.

Hori guztia, lankidetzaren ikuspegitik. Gipuzkoak **elkarte eta erakunde** sare aberats bat du, bai kopuruan, bai ezaugarrietan, eta horiek **funtszeko aliatu** bihurtzen dira proiektuak garatzeko orduan. Elkartek eta erakunde horiek gai bakoitzari buruz duten ezagutza eta sentsibilitatea, osatzen dituzten pertsonen transmititzen duten emozioa, daukaten inplikazio maila eta egiten duten trazio lan handia direla eta, indar berezia ematen diete proiektuei, eta, azkenean, inguruko ekosistema osoa, Gipuzkoako ekosistema, blaitzen dute. Berezi eskertzen dugu haiek ondoan izatea.

Era berean, **enpresa laguntzaileen babesa** nabarmendu nahi nuke.



REAL SOCIEDAD
FUNDAZIOA

Gizartearen eta jarduerak abiarazteko duten konpromisoa neurtezina da, beren proiektuen bidez egiten duten lana indartzen duen giltzarria.

Azkenik, **hitzartutako klubak** azpimarratu nahi ditut, horien bidez kirolaren inguruko proposamen bat artikulatzen baita, haur eta gazteei beren trebetasun fisiko eta sozialak garatzeko eta, aldi berean, kirolaren berezko balioak barneratzeko gune bat izateko aukera ematen diena.

Pertsonak, erakundeak, enpresak, klubak eta familiak **konektatzen dituen sare** horrek ematen dio zentzua gure jarduerari, eta proiektuen dimentsioa eta irismena zabaltzen ditu eta **lanean jarraitzeko beharrezkoa den konfiantza** ematen digu, ondo baitakigu sare horren potentzialak **etorkizun hobea** ekarriko duela.

Jokin Aperribay

Real Sociedad Fundazioko lehendakaria.



02



1

FUNDACIÓN REAL SOCIEDAD FUNDAZIOA BALANCE ABREVIADO ESFL AL CIERRE DEL EJERCICIO 2022-2023 (Euros)

ACTIVO	Notas de Memoria	2022-2023	2021-2022
A) ACTIVO NO CORRIENTE		9.455,80	11.031,60
I. Inmovilizado intangible.	4.1, 5 y 20	764,40	891,80
III. Inmovilizado material.	4.2, 6 y 20	8.691,40	10.139,80
B) ACTIVO CORRIENTE		2.659.004,54	3.653.889,21
III. Usuarios y otros deudores de la actividad propia.	4.4, 9 y 12.5	57.260,00	0,00
IV. Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar.	4.3.1 y 11	3,18	472.003,18
V. Inversiones financieras a corto plazo.	4.3.1, 7 y 16	2.571.538,86	3.168.938,98
VIII. Efectivo y otros activos líquidos equivalentes.		30.202,50	12.947,05
TOTAL ACTIVO (A+B)		2.668.460,34	3.664.920,81

PATRIMONIO NETO Y PASIVO	Notas de Memoria	2022-2023	2021-2022
A) PATRIMONIO NETO		40.000,00	40.000,00
A-1) Fondos propios.		40.000,00	40.000,00
I. Dotación fundacional/ Fondo social		40.000,00	40.000,00
B) PASIVO NO CORRIENTE		1.335.038,00	1.822.134,00
V. Periodificaciones a largo plazo	15	1.335.038,00	1.822.134,00
C) PASIVO CORRIENTE		1.293.422,34	1.802.786,81
V. Beneficiarios-Acreedores.	4.4, 10 y 12.1	278.393,19	896.987,40
VI. Acreedores comerciales y otras cuentas a pagar.		436.084,69	308.265,08
1. Proveedores.	4.3.2 y 8	286.481,66	191.418,34
2. Otros acreedores	4.3.2, 8 y 11	148.603,03	116.846,74
VII. Periodificaciones a corto plazo.	15	579.944,46	597.534,33
TOTAL PATRIMONIO NETO Y PASIVO (A+B+C)		2.668.460,34	3.664.920,81

San Sebastián, 14 de septiembre de 2023



2

FUNDACIÓN REAL SOCIEDAD FUNDAZIOA CUENTA DE RESULTADOS ABREVIADA ESFL CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO TERMINADO EL 30 DE JUNIO DE 2023 (Euros)

	Notas de Memoria	(Debe)	(Debe)
		Haber	Haber
		2022-2023	2021-2022
A) Excedente del ejercicio			
1. Ingresos de la actividad propia.	4,6	5.625.964,02	4.942.652,25
b) Aportaciones de usuarios		111.000,39	43.102,65
c) Ingresos de promociones, patrocinadores y colaboraciones	12,5	1.109.446,21	1.206.257,62
d) Subv., donaciones y legados imputados al excedente del ejercicio	4.11, 13	4.405.517,42	3.693.291,98
2. Ventas y otros ingresos de la actividad mercantil.	4,7	10.272,53	20.319,67
3. Gastos por ayudas y otros.	4,6	(2.763.627,24)	(2.495.170,35)
a) Ayudas monetarias	12,1	(2.763.627,24)	(2.495.170,35)
6. Aprovisionamientos.	4,6, 12,2	(169.916,97)	(40.515,54)
8. Gastos de personal.	4,6, 12,3	(1.259.788,02)	(1.062.110,93)
9. Otros gastos de la actividad.	4,6, 12,4	(1.439.549,11)	(1.352.843,05)
10. Amortización del inmovilizado.	4,1, 4,2, 5 y 6	(1.575,80)	(12.332,05)
A.1) EXCEDENTE DE LA ACTIVIDAD (1+2+3+6+8+9+10+14)		1.779,41	0,00
16. Gastos financieros.		(1.779,41)	0,00
A.2) EXCEDENTE DE LAS OPERACIONES FINANCIERAS (+16)		(1.779,41)	0,00
A.3) EXCEDENTE ANTES DE IMPUESTOS (A.1+A.2)		0,00	0,00
20. Impuestos sobre beneficios.	4,5, 11	0,00	0,00
A.4) Variación en el patrimonio neto reconocida en el excedente del ejercicio (A.3+20)		0,00	0,00
I) RESULTADO TOTAL, VARIACIÓN DEL PATRIMONIO NETO EN EL EJERCICIO (A.4)		0,00	0,00

San Sebastián, 14 de septiembre de 2023

MEMORIA EKONOMIKOA

Auditoretza txostena.

“Gure iritziz, erantsitako urteko kontu laburtuek, alderdi esanguratsu guztietan, Fundazioaren ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi leiala erakusten dute, 2023ko ekainaren 30ean, baita data

horretan bukatutako ekitaldiari dagozkion emaitzena ere, finantza informaziorako aplikatu beharreko arau esparruaren arabera, eta, zehazki, horren kontabilitateko printzipioen eta irizpideen arabera”.

03

LAGUNTZAILEAK / BABESLEAK

PATRONOA



REAL SOCIEDAD
FUNDAZIOA

OHOREZKO BAZKIDEAK



ORAIN
GIPUZKOA



kutxabank



kutxa
FUNDAZIOA

BAZKIDE ESTRATEGIKOAK



CIE Automotive



REALE
SEGUROS



AUTOBUSAK
Pizpurna

BAZKIDE SUSTATZAILEAK

BAZKIDE LAGUNTZAILEAK



AQVARIVM



ATRACCIONES
SANZ



bostnan
WE CREATE CHANGE



CHILLIDALEKU



GRUPO
elektra



Etxe-Lan



getin



iraupen^{URMA}



logikaline



mugape



SALTO
inspired access



vascoplast



ZAISA



ZAPATA
GARBIKETAK - LIMPIEZAS



**REAL SOCIEDAD
FUNDAZIOA**

Real Sociedad Fundazioa

Arrapide Pasealekua, 52
20160 Zubieta-Donostia
Gipuzkoa

+34 943 376 035

fundazioa@fundazioa.realsociedad.eus

<https://fundazioa.realsociedad.eus>

04

EMAKUME ENTRENATZAILEAK

Ez da erraza garatzea eta haztea identifikatuta edo eroso sentitzen ez zaren ingurune batean. Horregatik, talde bat zuzentzeko interesa izan dezaketen emakumeak erdigunean jartzen dituen ekosistema eraiki dugu. Eurentzat baldintza erosoak sortzen saiatzen den ekosistema.

Horrela, zehazki emakumeentzako diseinatutako prestakuntza sortu dugu UEFA-B mailan, Gipuzkoako Futbol Federazioarekin lankidetzan, eta formazio honetan lantzen diren gaietan ibilbide luzea duten pertsonak jartzen ditugu formatzaile lanetan, futbolarekin konektatuta dauden emakumeekin topaketak antolatzen ditugu, hitzaldiak antolatzen ditugu futbolaren munduan ibilbide luzea duten emakumeek beren esperientziak eta ezagutzak partekatzeko, gure know-how-a haien eskura jartzen dugu... Entrenatzaile izateko gaitutako pertsona bakoitzak egiten du programa honek merezi izatea.



05

ELKARBIZITZAN HAZI ETA HEZI

Kasu honetan fokoa gure gaztetxoetan jartzen dugu. Hain zuzen ere eurak dira gure gizartearen ondare baliotsuenetako bat.

Programa honen bitartez, eta ikastetxeekin elkarlanean, trebetasun sozialak lantzen ditugu. Hain zuzen ere beraien gizarteratze prozesuan erabilgarri izango zaizkien zortzi konpetentzia jorratzen dira zehazki: autonomia, gaitasun kritikoa, arazoaren ebazpena, enpatia, plangintza eta antolaketa...

Horretarako, Txurdinen inguruan gertatzen diren istorio eta egoera ezberdinez baliatzen gara eta hausnarketa sustatzen dugu hauren artean. Lanketa hau guztia kirolak trebetasun sozialak lantzeko eskaintzen duen aukera paregabearekin borobiltzen dugu.

Etorkizunak merezi duelako eta pertsonetan sinesten dugulako, bidea egiten jarraituko dugu.



16

BERTSO DERBIA

Futbolak bere inguruan jende ugari eta jarduera anitz batzeko gaitasuna du, eragile ezberdinen arteko bidegurutze izate honek, askotariko adierazpen eta ekimenen sorgune oparo bihurtzen duelarik.

Erakunde eta jende multzo zabal honen bueltan sortzen den mugimendua aldakorra, malgua, zehaztu gabea... izanik, badu txoko berezi bat metrikatan eta errimatan zurruna den bertsolaritzarentzat ere: Bertsos Derbya.

Bertan, 6 bertsolari aurkitzen ditugu aurrez aurre: hiru Realca ordezkaten eta beste horrenbeste Athleticen alde. Bi talde hauen artean sortzen den lehia osasuntsu, jator, kritiko zein dibertigarriak futbolaren aurpegi bat gehiago bistaratzen du. Futbolaren beste adierazpen bat.



07

G I P U Z K O A J O L A S E A N

Lurralde baten motor, pizgarri eta akuilu berau osatzen duten erakunde eta pertsonak dira. Hauen garrantziaz jabetuta, Real Sociedad Fundazioak beren ondoan egoteko konpromisoa sentitzen du.

Honela, eragile hauek antolatzen dituzten jai, ospakizun edota ekitaldiak atontzeko, gure puzgarriak jartzen ditugu euren eskura. Txikitxoei zuzenduak dauden puzgarriak, hain garrantzitsuak diren algara, irri eta txaloak jasotzen ditugularik ordainetan.



08

G E N U I N E

ATZEGIekin elkarlanean daramagun ekimen honen bitartez, bertan parte hartzen duten kideei euren hazkuntza pertsonalerako espazioa eskaintzen diegu. Gaitasun berriak barneratu eta garatzeko espazioa. Bai gaitasun tekniko eta fisikoak, baina baita gizartean erabilgarri zaizkien bestelako gaitasunak ere: autonomia, komunikazioa,...

Dena den, ekarpen guztien artean bat nabarmendu beharra dago: poza. Realean jokatzeko eragiten dien poza. Batetik beren buruetan duten konfiantza indartzeko balio izan dielako eta, bestetik, futbolari sentitzeak, Zubietan entrenatzeak eta, bereziki, Real ordezkatzeak sekulako ilusioa sortzen dielako.

Beraz, pertsona hauek jardura honetan adierazten duten indarrak eta urtetik urtera pertsona hobeak izaten jarraitzeko erakusten duten grinak harrotasunez betetzen gaitu eta indar berezia ematen digu programa honetan aurrera egiten jarraitzeko.

WALKING FOOTBALL

Real Sociedad Fundazioaren lan ardatz nagusienetako bat da bere programen parte diren kolektiboen osasuna sustatzea, bai osasun fisikoa eta baita mentala ere. Hemen kokatzen dugu Walking footbolla.

Honela, jarduera honen bitartez, 55 urtetik gorako emakumezko eta gizonezkoei Zubietan zein Arrasaten elkartu, kirola egin, solasaldiak izan, irteerak egin... eta, batez ere, elkarrekin ondo pasatzeko aukera irekitzen zaie.

Bizitzen dituzten onurak euren hitzetan entzuteak ematen digun pozak urtetik-urtera hazten doan jarduera honekin jarraitzeko sobera indar ematen digu.

09





10 KORNER

Erakusketak, futbola, liburuak, kirola, antzerkia, elkarrizketak... ezinezko konbinazio dirudien hau, Korner Jaialdian hezurmamitzen da.

Bertan, futbolaren bueltan sortzen den mundu paraleloa bistartzen saiatzen gara. Mundu bat non hausnarketa interesgarriak planteatzen diren, umorez beteriko egoerak kontatzen diren, pertsonaia ezagunek futbolarekin duten harremana kontatzen diguten, futbola oinarri duten liburu zein antzezlanak aurkezten diren...

Futbola benetan mundu aberasgarria dela sinesten dugulako; Konexio berriak sortzen dituen, eta konexio hauetatik, ekimen eta sorkuntza berriak. Honegatik murgiltzen gara urtetik urtera Korner Jaialdian.



REAL SOCIEDAD FUNDAZIOAREN EGUNA

Fundazioaren Eguna da urtean zehar garatzen ditugun jarduera ezberdinen eta hauetan lantzen diren balioen agertoki nagusia. Bertan aurkituko dituzu puzgarriak, kirol egokitua, pailazoak, kirol modalitate ezberdinak, musika, jateko eta edateko postuak... Eta hori guztia, beti, giro paregabean murgilduta.





13

BIZIKLETAZ ADINIK EZ

Alboan izan, eta ezin gozatu. Batzuetan, guretzat bereziak diren txoko horietara iristeko zailtasunak ditugu. Hori da programa honen erabiltzaileen kasua. Urteetan aurrera egin ahala, nekeza bihurtu da euren bizitokitik atera eta aspaldian ikusi gabeko bazterretara iristea.

Beraz, Bizikletaz Adinik Ez erakundearekin batera, pertsona hauek txoko horietara eramaten ditugu horretarako prestatuta dauden txirrindu berezietan.

Euren aurpegian marrazten den irribarreak, euren begietan sortzen diren malkoek, burura datorzkien oroitzapen kuttunak... honek guztiak egiten du ekintza honek merezi izatea.

14

AMETS BAT

Reala gertutik bizitza haur batentzat amets bat izan ohi da. Amets hori errealitate bihurtzen da Amets Bat programari esker.

Haurrek, euren ikastetxeak medio, Reale Arenara etortzeko aukera dute programa honen bitartez eta honela, bertako instalazioak bisitatzeko, Realaren historia eta balioak lehenengo pertsonan ezagutzeko eta baita Txurdirin konpainiaz gozatzeko ere. Gainera, esperientzia hau, Reale Arena inguruko kirol-instalaziotan egiten diren jarduerekin osatzen da, beste behin, kirolak duen garrantzia agerian utziaz. Kirol ekintzaz gain, Aquarium edo Chillida Lekura ere eramatzen ditugu haurrak, gure ondarea ezagutzeak berebiziko garrantzia duela ulertzen baitugu.



15

SAREAK

Mendez mende, itsasoari begira bizitako gizartea gara. Arrantza ontziak, saregileak, lonjak, arrantzaleak, turruna, portuak, sareak... Testuinguru honetan zaildu da gure izaera.

Hau honela izanik, horrenbeste eman digun itsasoa zaintzeko konpromisoa ezinbestekoa dela ulertuta, programa honetan murgildu ginen.

Honela, itsasoratzeko balio ez duten sare zaharrei bizi berri bat ematen diegu hondartzan jokatzen diren partidatoko ateetako sareetan bihurtuz. Aldi berean, bare-bare eta etenik gabe, belaunaldi belaunaldi lanean aritu diren saregileen lanbidea balioan jarri eta bistaratzen ere saiatu gara, programa honetan egiten duten lana nabarmenduz.





16

CAMPUSA ETA UDALEKUAK

Kirolak gure garapen fisiko eta mentalean duen garrantziaz jabetuta, haurrei euren aisialdirako kirol aukerak eskaintzen dizkiegu programa hauen bitartez.

Bertan, batetik, euren gaitasun fisikoa sustatzen dugu futbolean oinarritutako zein bestelako kirol jarduerak aintzat hartzen dituzten jolasen eta ariketen bitartez eta, aldi berean, talde lana, enpatia, solidaritatea, errespetua eta tolerantzia bezalako balioak lantzen ditugu.

Urtetik urtera bertatik pasatzen diren haurrek erakusten duten pozak eta euren garapenari ekarpenak egiteko aukera, nahikoa arrazoi dira bide honetan aurrera egiten jarraitzeko.






Gure sarearen INPAKTUA GIPUZKOAN

2022-2023 denboraldian zehar



HITZARMENAK

Elkarlana indartzen.
91 KLUB HITZARTU



SAREAK

16 PORTERIA
Egin ditugu arrantzarako balio ez duten sareei bizi berri bat emanda.



ELKARBIZITZAN HAZI ETA HEZI

Txurdinen istorioen bitartez trebetasun sozialak landu ditugu.
295 IKASLE, 8 IKASTETXE



BIZIKLETAZ ADINIK EZ

Adinekoen eta aniztasun funtzionala duten pertsonen ametsak betetzen, hiru gurpilen gainean.
60 PERTSONA, 10 ENTITATE



KORNER

Barreak, hausnarketak, liburuak, proiektzioak, ... koktel txuri urdina.
2650 IKUSLE



WALKING FOOTBALL

+55 andre-gizonak osasuntsu egon eta ondo pasatzeko kirol-espazioa.
44 JOKALARI (8 NESKA ETA 36 MUTIL)



AMETS BAT ETA CAMPUS/UDALEKUAK

Realarekin ondo pasa eta bere historian murgiltzeko gunea.
4000 HAUR, 65 IKASTETXE



EMAKUME ENTRENATZAILEAK

129 EMAKUMEK eskuratu dute Uefa C titulazioa eta 19 Uefa B